

# Lizarrako Ihauteriak Aldabikaren Ihauteriak

## LIZARRA IKASTOLA

### SARRERA

**H**iru izan dira “LIZARRA IKASTOLA”-ren helburuak lan honetan sartzekoan:

1. Lizarrako ihauteriaren substratua aurkitzea, ihauteri historiko bat lortzeko asmoz.
2. Etxekoa eta ezaguna den ihauteria gure ikasleei eskeintzea.
3. Eskola munduan soilki gelditu gabe, eta, gure ustez, berea den ihauteria, Lizarrako hiriari azaltzea.

Ihauteri hau, Lizarraldean sortua izateak hemen bizi garen guztiok aktiboki parte hartzera deitzen gaitu.

Aldabikaren ihauteriak (Lantz, Zuberoakoa eta besteen moduan), eta mozorroak dakarren anonimoa dela medio, gure espresibitate guztia kalertzera gonbidatzen gaitu; eta ez hain “famatu” diren zenbait ihauteri bezala (Río de Janeiro, etab...); jendea ikusle soila izatera mugatzen dutenak.

Hona hemen gure azalpenean jarraitu dugun bidea;

1. Lehenengo kapituluak Aldabikaren ihauteria ospatzeko modua azalduko digu, bere elementu osagarri guztiak aipatuz; Aldabika, palokiak, zintzarrotsa, errautsa eta pikua, etab...

2. Gainontzeko kapituluetan, pertsonaia edo elementu hauek, banan banan aurkeztuak izango dira, bere jatorri eta ezaugarri orokorrak aipatuz.

### I. ALDABIKAREN IHAUTERIA

Lizarrako kaleetan zehar zerbait nabari da, “zerbait” berezi bat. Udaberria ez da oraindik heldu, baina heltzear dago. Bizi-arnas berri bat jaiotzear dago. Ihauteri larunbata da!

Hor dago Aldabika, asto baten zaldun: prakua urdin ilunak, alkandora lo-

ratua, sorbaldatik gerrirainoko bular aldean korapilatutako zapi haundi bat loturik, eta segari kapela haundi bat buruan. Lizarran dago guzti guztia aztertzen betidanik ezagutuko balu bezala. Makila bat darama bizkarrean besoan hein berean; hutsunea besarkatuz doala dirudi.

Bere inguruan, eta biribilketaren joan, amaigabeko dantza batetan, palokiak doaz.

¡URI URI URA!	URI URI URA!
¿QUIEN HA ROTO LA CHOCOLATERA?	ALDABIKA ALDABIKA
¡URI URI URA!	URI URI URA!
QUIEN LA HA ROTO LA PAGARA	IHAUTERIAK GORA!

Palokiekin ameskeria munduan sartzen gara. Beraien buru haundiek, oraindik gehiago hazi nahi dutela dirudi. Aintzinako buru haundi haiek, garagar-mami zaku haundi haiek, oihal koloretsu eta dizdiratsu gaur egun, ederki asko gordetzen dute azpian doan "Mozorrore"-aren nortasuna.

Palokiak bezain zirikatzaile dira, nahiz eta hain ikusgarriak ez izan, kaletan zehar aldarrika doazenak:

AL HIGUICO AL HIGUICO  
AL QUE LO COJA PALICO

Eta, pikua hartzera, umeren bat hurbiltzen denean... plasta!, aurpegia errautsez bete aurkitzen du bere burua.

Badago, oraindik, gehiago Lizarrako ihauterietan; zintzarrotsaren eraginez, eta, agerian edo izkutuan, inguruan dabilzan otso eta izpirituak izutu eta uxatzen dituenak.

Hala ere, hau, guztiau, joku bat, axut bat besterik ez da. Aldabika lapurra terreatua izango da, orain ordainduko ditu bere sarraldi guztiak. Inork ez dio ttanttarik ere barkatuko, eta berak badaki. Baina berak ere axut egiten die, nahiz eta errea izan, nahiz eta paloki guztiak bere inguruan dantzan eta iseka, sugar guztiak itzali arte, aritu arren, nahiz eta zintzarriak biziro jo eta jo, berriro berpiztuko dela eta berriro ihauterietan bizirik iraungo duela ongi dakielako.

## II. ALDABIKAREN BIZITZA

*"Aldabika. Abartzuzako lapur porrokatuaren abentura eta zoritxarrak".*

JUAN SATRUSTEGUIK

Joan den mendeko azken laurdenean, eta azken karlistada bukatu ondoren, nekazaritza suntsiturik zegoelarik, eta gizarte sistema, oraindik, jauntxokerian oinaturrik zegoelarik herriak, herriko jendeak, gosez ez hiltzeko bere besoak eskaintzen zituen jendeak, bere mixeria egoerak itorik batzuetan, eta guda urte luzeetako bortxakeriaz ohiturik, nahi ta nahi ez jasan behar zuen bake baten aurka, mendira abiatzen zituen bere pausoak, edo pika-reskari ekiten zion, bere lapurretaz besteren kontu ahalik eta hoberen bizitzeko asmoz. Inguruko aberatsak ziren, ahal zen neurrian, lapurketa haien biktimak.

Hauetako lapur bat genuen Aldabika, Abartzuzako lapur famatua XIX.

mendeko azken hogeitabost urteetan kontaezinezko lapurketa eta odol isuririk gabeko azpikeriak egin zituen gizona.

Bere delituzko akzio ezagunenetarikoen artean Aranaratxekoa dugu:

Jai eguna zen; eta —dirudienez— Goi Ameskoa guztia bigarren karlistadaren bukaera ospatzen zegoen.

Aldabikak, lehendik pentsatuta zeukan zerbait egitea, etxe boteretsu eta dirudunak (abelazkuntzatik sortutako aberastasun eta diruak) salteiatzea. Horretarako, eta jendea mezatan zegoela probetxatuz, eta Urbasako Mendizerra zeharkatu ondoren, Aranaratxe ondoan jarri zen, Lizarrako sei bat lagunekin, “Aldaia”-n hain zuten. Jende guztia San Lorentzo eleizan zegoela ikusi zuenean, bere lagunekin jaitsi eta etxe guztietatik pasa ondoren, berak eta lagunak, aurkitutako guztia garbitu zuten.

Koadrilakoek, ez hain lapur trebeak, urdaiazpiko, lukainka eta abar besterik ez zuten beraiekin eraman. Aldabikak ez; bazekien zer egiten zuen; Aldabikak, erlojuak, urrezko txanponak, eta balio haundien eta bolumen gutxikoen gauzak besterik ez zuen hartu. Besterik, ogi bat eta zahatoa bete ardo besterik ez zuen harrapatu.

Aldi hartan, ez zen oso zaila lapurketa haiek burutzen; beren etxeetako atekak ez bait zituzten inoiz giltzatzen. Hau jakinez, errazagoa zen, askoz errazagoa, Aldabika eta bere lagunentzat beren “lana” ongi betetzen.

Baina ustekabea ere gertatu zitzaion: bere lapurretan zebiltzala, kanpandorrean zigarratxo bat erretzen zegoen herriko batek ikusi zituen; baita tximista bezala jendeari abisu ematera jaitsi ere<sup>1</sup>.

Azkar atera ziren lapurren atzetik, baita batzu harrapatu ere, baina, eta pisurik ez zeramanez, gure Aldabikak hanka egin zien. Ongi ikusi zuen, bai, “La Aldaya” basarteko pago baten hutsunean izkutaturik bere lagunak atxilotzea.

Pixkanaka pixkanaka beste guztiek ere, ondo sentitu zuten justiziaren pisua.

Han egon zen Aldabika pagoaren sabelean zenbait egun, bere ogi eta ardoari ekinez. Ez zen handik mugitu Goardia Zibilen jazarreta amaitu arte.

Hau da, beraz, Aldabikaren ibilera guztien artean ezagunenetariko bat.

Arronizko herriak ere jasan behar izan zuen gizon honen gaiztakeria bixia.

Herri honetan, nekazarien artean, Abrego familia zen garrantzitsuenetariko bat. Urtero, eta nekazari lanetarako nagusiaren presentzia beharrezko ez zenean (udan, jorra eta epaitea bitartean) Zestoara joaten zen etxe honetako burua hango ur sendagarrietan murgiltzera. Herrian, eta etxea zaintzen, maizterra uzten zuen; honek ganadua gobernatu eta lanerako jendea biltzen zuen.

Aldabikak ondo botata zion begia etxe honi; ongi ezagutzen zituen etxe honetako aberastasun eta ondasunak etxeko morroiohi bati esker.

Bai zin-zinez prestatu zuela Aldabikak bere “lana”. Ongi zekien bai gure lagunak zer nolako arriskuak jasan beharko zituen, bera harrapakina ikaragarria izanik, agintarien errepresio eta eraso egundokoak izango baitziren.

Gauero joaten zen eleizako errozariora, baita goizeko mezatarara ere sutsu eta gartsu.

Zegoeneko ez zegoen lapurketarik; ez haundi eta ez txiki, eta jendea la-sai zegoen Yerri bailara guztian (lapur honen “balentrien” aretoa).

Baina egun batetan, fede eta gar bolada honen barruan, hona hemen Arronizko Goardia Zibilei abisu bat heltzen zaiela: Abregotarren etxetik izugarrizko bitxi eta urrezko txanpon pila lapurtu dutela. Eta Aldabika izan-go zelakoan Abartzuzako kontseiluari dei egiten diote bere azken ibileraz galdetuz.

Gertaera justiziaren eskuetan jarria izan zen, erru guztia Aldabikari botatzeko asmoz; baina herriko jendeak, apeza tartean zela, hori ezinezkoa zela aitortu zuen; egunero, egunero eleizan zegoela (bai mezatan, bai errosarioan) egun eta ordu haietan.

Ederki asko bizi izan zen bolada luze batez azken lapurreta honi esker. Jendeak susmatzen zuen, bai, nor izan zen Arronizen “lanean” ibili zena, ez baitzen ordudanik aurrean azaldu errosario eta mezatara. Alderantziz, ondo ezagutzen zuten Iruñean eta Donostiako jatetxe famatu eta putetxeetan.

Urteak pasatu ziren Aldabikarentzat ere, eta fisikoki sendoegi ez zegoelarik, Lizarrara egunero joaten ziren esnesaltzaileak atrakatzen zituen, Muru gain aldetik pasatzen zirenean, aurpegia ongi estalirik.

Ez zen oso atsegina izan bere bizitzaren bukaera.

Negu goiz batetan aurkitu zuten Irantzuko Monastegira doan bidean, zi-maur tartean etzanda eta hiltzear. Izugarrizko zulo bat zeukan buruan odola zeriola.

Zurumurruek ziotenez, Aldabikaren ugazaba izandako nekazari bat izan zen erasotzailea, honek zaldi eder bat lapurtu omen zion eta. Lapurtu eta gauzak ondo eginez gainera: etxea ongi ezagutzen zuenez, gau batetan sartu, zaldia ikuilutik atera eta zalapartarik ez ateratzearren zaku pusketaz aztalak lotuz kalean zehar eraman zuen.

Hura herriaren poza Aldabika hil zorian aurkitua izan zenean!; laister asko joan ziren bera zegoen lekura eta, inolako begiramendurik gabe, arras-taka hartu eta herriko gartzelara eraman zuten; ondoren, jendearen algara eta pozaren pozez, guztien aurrean, erre egin zuten. Azkenean, jantzi, bitxi, etxeko tresna eta abarren lapurretak bukatuak ziren! Ez zen lapurreta gehia-gorik izango, ez Abartzuza ez eta Lizarralde osoan! Ez ziren eguneroko be-rrri izango!

Honela amaitu ziren pertsonaia honen egunak, aberats eta behartsuen la-purra, txorigalduen buruzagia, bidelapurra batzuetan, benetako lapurra, zital eta gaizkilegai guztien eredu. Berak izan zituen harrapaezinik Lizarraldeko Goardia eta justizia guztiak. Bere bizia ahoz-ahoz eta belaunaldiz-belaunaldi pasatuz joan da ehun ta zenbait urteotan. Gaur egun, eta oraindik, lapur bat aipatzerakoan, Aldabika baino lapurragoa dela entzun dezakegu gure herrie-tan.

JUAN SÁTRUSTEGUIK

## III. PALOKIAREN JATORRIA

Palokia pertsonaia herrikoa bilakatu da Aldabikaren ihauterian; pertsonaia honek jaia bizitzeko aukera eskaintzen dio partaide izan nahi duen edonori. “Mozorrote”, edo palokiz herriak lasaiki dantza, txantxa egin eta goza dezake ihauterietako poza.

Palokien jatorria ez da ihauterietakoa. Soldadutzara joan behar zuten gazte taldeak mozorrotzen ziren era honetan. Gazte hauexek jantzi hori ihauterietan ere erabiltzen zuten, oso egokia eta ikusgarria bait da. Urte berreko gazte talde haiek zakuak erabiliz mozorrotzen ziren, barrutik kanpoaldea ikusten zelarik, burugainean zeramaten bahea estaliz.<sup>2</sup> Alkandora lotzen zuten gerri inguruan, maukak zintzilik. Beren besoak zakupean aske zituztelarik palokiek bahea kokotetik goreneraino igo zezaketen, buruaundi itxura zuena erraldoiarena izatera pasatuz. Bizkarrean, zeharreran, besoen antzera alde banatan irtenez, makila zeramaten jendea zirikatzeke eta astintzeke, gerriz bira eginenez gero batik bat.<sup>3</sup>

“Paloki” hitzaren sustrai etimologikoa ikertuz bere esanahia argi diezagukeen hipotesia botatzen ausartzen gara:

“-ki” euskal atzizkiak izenkia duenean objektua adierazten du, izenaren zatia, edo zehatzago “genero” horretakoa. “bildoskia”, bildots haragia, “eperkia”, eperrarena, “handikia”, handien artekoa (magnatea), “odolkia”, odol zatia, “aingerukia”, aingeru izakia..., “paloki” hitzak, makila-egurrezkoa esan nahi izango luke.


## IV. PALOKIEN MARTXA

Palokiak “palokien martxa”-ren doinuz ihauterietan kaleratzeko ohiturak mende honetako hogeigarren hamarkada arte iraun zuen.

Oraindik palokientzat aipatutako martxa jotzen JULIAN ROMANO SENOSIAIN gaita-jolea ikusi zutelako kontua duen lekuko bizirik ere bada. Berauek dira ondorengo hitzekin abesten zen doinua gogoan hobekien dutenak;

¡URI URI URA!  
¿QUIEN HA ROTO LA CHOCOLATERA?  
¡URI URI URA!  
QUIEN LA HA ROTO LA PAGARA

Ihauterietako igande, astelehen eta asteartez, goiz eta arratsalde, palokiak Lizarrako kaleetan zehar ibiltzen ziren beren doinu alaiarekin.



## V. ZINTZARRO TSA

Denok dakigun bezala, ihauterietan, Ituren eta Zubietako joaldunak zintzarrotsez aritzen dira bideetan barrena. Ohitura hau, aipatutako herri hauetan ere, ihauterietan ezezik Errege bezperan ere ospatzen da, urtarilaren bostean alegia.

Baina, ez da hain ezaguna Lizarraldeko zenbait herritan ere Errege bezperako ilunabarrez ospatzen dena; Lezaunen, Abartzuzan, Yerriko Hiriberrin, Ameskoan...

Euskal Folklorean zintzarrotsak duen esanahia adarra jotzearena da. Honela, bada, alarguntzen ezkontzetan egiten ziren toberak, bigarren ezkontzak folklorean zuen iritzi txarragatik. Abisu gisa eta mesprexuz ere egin ohi zitzaizen kanpotik herrira bizitzera etorritakoei.

Guzti horrekin batera parranda zentzua ere badu, talde mozorrotuaren ekintza izanik. Ezin litekeena da bakarkako zintzarrotsa edo jendaurreko zintzarrotsa, beren egileak behar bezala mozorroturik ez badira behintzat. Zintzarrotsa folkloreko beste ekintza batzurekin nahasten da zenbaitetan, ihauterietan beraiekin ere, ekitaldia jendaurrean edo egun argiz ematen denean, guztiak ongi mozorrotuta agertzen direlarik.

## VI. ERRAUTSA ETA PIKUA

XX.mendearen hasieran ihauteriak ospatzeko bi joera bereiz zitezkeen Lizarran. Batzuk toki itxietan, ("Mercantil", etab...); bazkideek eta lagunek bertan afaldu ondoren jaia hasten zelarik. Besteek kalean ospatzen zuten, herri xehearen ihauteria zen; hauek burukoz, zakuz, alkandoraz, eta abarrez mozorrotzen ziren.

Errautsa zen nahiena ihauterietako parranda kalean ospatzen zutenen artean. Mozorrotuen artean taldekoentzat sutontzian gaztainak zeramatzana ere izan ohi zen. Mozorrotutariko beste batek soka zuen makila zeraman eta pikua honi lotua.

AL HIGUICO AL HIGUICO  
AL QUE LO COJA PALICO

Pikuak haurrak tentatzen zituen. Baten bat pikua hartzeaz zegoela sutontzia zeraman mozorrotuak eskutada errauts jaurtikitzen zion aurpegira. Pikurik gabe geratuko zen, behintzat-gutxienez...

Diotenez, errauts gudu izugarriak izaten omen ziren.

## VII. JUDAS-EN ERREKETAREN OHITURA

Garizuma bukaeran, Bazko astelehenez, ospatu ohi zen Judas-en erreketan bezalako ohiturari badagokio ihauteriar buruzko lan honetan azaltzea, ez da paradoja izanen, hala dirudien arren. Ezinbestekoa gerta ohi da Garizuma aipatzea ihauteria aztertzean, baita alderantziz ere. Ihauterietako asteartea

Hausterre Egunaren bezpera da, eta Garizuma bukatzen den Bazko Igandera iristeko berrogeitasei egun zenbatu behar dira aipatutako asteazken hone-tatik hasiz.

Judas-en erreketaren ohitura ez da Lizarrari bakarrik dagokiona. Iberiar Penintsula guztian oso hedaturiko ohitura da. Burgos-en, Errioxa-n, Soria-n eta Murcia-n ere Judas erretzen zuten. Nafarroan ohitura hau dutenak dira Tafalla eta Tuteran.

Lizarran erretzen zutenari gagozkiolarik, lanbide berdineko emakume batzuen nahiari esker irauten zuen ohitura zela esanez hasiko gara. Galtzagi-leak, jostunak, eta abarrak izan ohi ziren delako erreketan antolatzen zutenak.

Askari edo txokolate jate baten ondoren, emakume hauek Judas-en pan-pinaren prestaketari ekiten zioten. Pertsonaia lastoz eta gatzez betetzen zu-ten alaitasunez marmar giroan. Ohitura honek zuen gauzarik hoberena zen.

Judas-en bidea ere betikoa zen. San Pedro auzoko Judas-i gagozkiolarik lehenbizi, Judas-ik "ofizialena" bide honexeri jarraitzen zitzaion: San Mar-tin enparantzatik San Juan-enekoraino, Nabarrerian zehar berriro abiapun-tura itzuliz. Errosario bukaeran, zortzi t'erdiak aldean, erre ohi zen panpina. Mezatatik irten bitartean sutea prestatzen zen, Judas bere gainean kokatzen zen eta dantzari ekiten zitzaion; emakume antolatzaileek, peinetaz, ijito pan-deroz, Manilako mantoiz apaindurik gurdi gainean dantza egiten zuten. Go-ya-ren koadro batetik ateratako irudia zirudien.

Errosariotik jeisten zirenean hasten zen Judas-en erreketan. Gero ardo go-xoa, pattarra eta opilak banatzen ziren inguruko artean. Oso zen auzoko jaia.

Erre aurretik Judas-ek pairatzen zuen ibileran emakumeek trufaz antzez-ten zuten, gaitaren doinuz, opilak eta ardo ozpindua eskaintzen ziren,... Alaitasun handia izaten zen.

San Pedro auzoko Judas-en erreketan San Martin enparantzako iturri on-doan izaten zen. Emakumeen senarrak ziren sute handia prestatzeko ardu-radunak.

Lizarran Judas desberdinak ospatzen zirenez, ordutegia egokitu egiten zen hiritarrek guztietan parte har zezaten.

Misericordia-ko Judas atarian eskegita egon ohi zen arratsaldeko hirure-tarako. Alkandora urdin iluna jazten zuen. Arratsaldeko zortzietan etxeko agintari guztiak aurrean adi zirela (apaizak, lekaimeak, etab.) panpina erre ohi zen.

## BIBLIOGRAFIA

- CARO BAROJA, JULIO. "El Carnaval". Taurus Argitaletxea. 2. edizioa. 1979. Bilduma: "La otra historia de España" 2. zenbakia.
- SATRUSTEGUI, JUAN. "Aventuras y desventuras de Aldabika, ladrón impenitente natural de Abárzuza". Trabajo literario-histórico-legendario sobre Aldabika, realizado a petición de la Ikastola Lizarra para su escenificación carnavalesca durante esas fechas de comienzos de febrero. Estella, 1990.
- TRINTXERPE, GORKA. "La zenzerrada del día de Reyes". Egunkariko idaztia.
- VILLASANTE, LUIS. "Palabras vascas compuestas y derivadas". Franciscana Aranzazu Argitaletxea.

Gure eskerrik beroenak Lizarrako Ihauteriei buruzko informazioa eskeini diguten pertsona guztiei.

"LIZARRA IKASTOLA"-k

- Boneta, Carmelo
- Lizarrako Gaiteroak
- Ruiz, Saturnina (Aranaratxetarra)
- Salsamendi, Emilio (aurorora)
- Sanchez, Jesús (aurorora)
- Satrustegui, Juan

1. Pasadizo hau beste era batetan jaso diogu Aranaratxeko Saturnina Ruiz andereari; bere hitzetan, Aldabika eta bere taldea ikusi zuena soroetan abererik sar ez zedin zaintzaile zegoe-na izan omen zen. Zaintzailea, bere lanean, kanpandorrean omen zegoen.

Herrikoak jakinean, elizatik irten ezinean ibili ziren Aldabikaren kideek ateei eusten zietelako. Egoera honetan, kanpanjoleak inguruko herrietakoak ere mugi araztearren joka jarraitu zuen. Inguruetaoak izan ziren lapurrak atxilotu zituztenak, baina ez zuten Aldabika harrapatu.

2 eta 3. Juan Satrustegui-ren berriematearen arabera.